

Uztailaren 15ean  
**URTEAN ZEHARREKO 15. IGANDEA**

**Agurra**

Gure Berri Ona den Jauna izan bedi zuekin.

**Sarrerako oharpena**

Jaunaren izenean bilduak gaude, senideok. Berak deitu gaitu. Beraren Hitza entzutean Jauna mintzo zaigu. Otoitz egiten dugunean, gurekin otoitz egiten du. Bidaltzen gaituela ere barneratu nahi dugu: misiora bidaliak gara, berri ona zabaltzera bidaliak.

**Damu-otoitza**

Jesus Jaunak hitzaren eta Eukaristiaren mahaira dei egiten digu eta, horretarako, bihotz-berri gaitzela eskatzen. Aitor ditzagun, beraz, geure bekatuak eta eska dezagun uste osoz Jainkoaren errukia.

—Jesus Jauna, Aitagana garamatzan bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, herri guztiak argitzen dituen egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua eraberritzen duen bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltzua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

**Otoitza**

**Zure egiak, Jauna, argitu egiten ditu oker dabiltzanak,  
bide zuzenera itzul daitezten;  
egizu, izenez kristau direnek  
egintzetan bete dezatela eta agertu  
beren kristau izatea.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

### Hitzaren liturgiari oharpena

Amos bezala, ikasleak bezala bidaliak gara gu ere: baliabide askorik gabe, behar bada, baina enkargu garrantzitsu batekin: mundua berritu, egiturak aldatu, Jainkoaren maitasuna aldarrikatu.

### Lehenengo irakurgaia (Am 7, 12-15)

Amos profetaren liburutik

Egun haietan, Amasiasek, Betelgo apaizak, honela esan zion Amosi: «Ikusle, zoaz hemendik; ihes egizu Judako lurraldera; jan ezazu han zure ogia, eta hots egin han profeta-hitza. Baina Betelen ez hots egin gehiago profeta-hitzik; hau erregeren toki santua da eta, erreinuko jauretxea».

Amosek erantzun zion Amasiari: «Ni ez naiz profeta; ezta profetaren semea ere; artzaina naiz ni, basapiku inauslea. Artaldearen atzetik nenbilela hartu ninduen Jaunak; eta esan zidan: "Zoaz, eta hots egin iezaiozu profeta-hitza Israel nire herriari"».

### Erantzun-salmoa (Sal 84, 9ab-10. 11-12. 13-14)

Jau - na, zu - re on - gi - nai - a e - ra - kus e - zai - gu -  
zu, zu - re sal - ba - me - na e - mai - gu - zu.



Entzungo dut Jaunak diogen hitza:

«Bakezkoa da Jainkoaren hitza.»

Hurbil zaie Haren beldur direnei salbamena:

gure lurrean Haren aintza biziko da. R/.

Onginahia eta leialtasuna elkarren bidera aterako dira,

zuzentasuna eta bakea laztanka biziko dira.

Lurretik erneko da leialtasuna,

zerutik begira egongo, zuzentasuna. R/.

Jainkoak on dena emango du,

gure lurrak bere uzta ekarriko du.

Zuzentasuna ibiliko da Haren aurrean,

eta salbamena, Haren urratsen bidean. R/.

**Bigarren irakurgaia** (Ef 1, 3-14) *Kako arteko zatia utz daiteke.*

San Paulo Apostoluak Efesoarrei

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, Espirituaren era guztietako bedeinkapenez, zeruan Kristorengan bedeinkatu gaituena. Harengan aukeratu baikintuen, mundua sortu baino lehen, Haren aurrean, maitasunez, santu eta errugabe izan gaitezen.

Aurrez aukeratu gintuen semeordeko izateko, Jesu Kristoren bidez, bere nahiaren aberastasunez; bere Seme maitearengan hain ugari eman digun graziaren aintzak Bera gorespenez bete dezan.

Seme honengan, Honen odolaz dugu erospena, eta bekaturen barkamena; halakoa izan da Haren grazia aberastasuna. Oparo isuri baitigu bere grazia ezaguera osoz eta jakinduriaz: bere nahiaren

misterioa ezagutarazi digu, bere onginahiz erabakita zeukana, garaia zetorkenean beteko zuena: Zeruko eta lurreko gauza guztiak Kristorengan bilduko dituela, Berau buru dela.

[Kristorengan oinordeko gertatu gara gu ere; horretara deituak izan gara, gauza guztiak Berak nahi bezala egiten dituenaren erabakiz. Eta Kristorengan uste on izan genuenok, Jainkoaren aintzaren gorespen izango gara.

Baita zuek ere —egiaren mezua entzun duzuenok, zuen salbamenaren berri zoragarria, alegia— hori sinestean, agindutako Espiritu Santuaz seinalatuak izan zarete. Eta Espiritu Santuan dugu gure oinordekotasunaren bahikuntza, Jainkoaren aintzaren gorespenerako, bere herrian denek salbamen bete iritsi bitartean.]

### Aleluia (Ik. Ef 1, 17-18)



Jesu Kristo gure Jaunaren en Aitak  
argi bitza gure bihotzeko begiak,  
horrela jakin dezagun  
nolakoa den Haren deiaren itxaropena. R/.

### Ebanjelioa (Mk 6, 7-13)

### Homiliarako argibideak

*Biderako arin*

Ez ogirik, ez zorririk, ez diru sueltorik, ez aldatzeko jantzirik; soinekoa, oinetakoak eta bastoia. Ibiltzeko behar dena, bestelakorik ez die baimentzen Jesusek bere ikasleei. Ibiltzeko behar dutena, izan ere ibilian garatzen da ikaslearen bokazioa. Eta ibiltzea galarazten duen guztia, ibiltzea eragozten duen guztia, ez da ona ikaslearentzat, ezta ebanjelizatzaile izan nahi duenarentzat ere. Soinekoa, makila eta oinetakoak, nahikoa!

Soinekoa Berri Ona dute. Jesusek Aitaren erregetzaren Berri Ona eman die eta Berri Onaz jantzita doaz doazen tokira. Ez dute eranskinik behar, ez gainjantzirik ere. Beste gauza guztien biluztasunean erakutsiko dute Berri Onaren dohain betea. Beste estalki eta jantzi guztiek ez diete Berri Ona ezkutatu eta estali besterik egingo. Berri Onaren gorritasuna da Jesusen ikaslearen jantzi guztia.

Makila eskuan. Jesusek «espíritu lohien gaineko agintea» eman die eta eskuetako bastoi horrek horixe adieraz lezake, eman zaien agintea. Ez da boterea, ez da jendea azpian hartzeko baliabidea, ez da inor zapaltzeko handikeria. Gizon eta emakumeei kalte egiten dien guztiaren kontrako agintea da. Jendea pozteko agintea. Jendea libratzeko ahalmena. Batez ere, gizartean lotuenak zeudenentzat eraman behar zuten Berri Onaren egintza askatzailea. Makila, ez inor jotzeko, zokoratuak pozteko baino.

Eta oinetakoak. Ibiltzeko behar dutena. Itinerantzia da ikaslearen moldea. Biderako eginak gara. Kontua izango da bakoitzaren bizimoldea Jesusen eskabide honetara tolestatzea, baina, sakonean, gabiltzanean gabiltzala, bihotzaren desinstalazio hori beharrezkoa du Jesusen segizioan doanak. Ezin gaitezke, aski dugula pentsatuz, gaudenean habia eginda geratu. Beti bidea daukagu aurrean: barrurako bidea eta lagun hurkoarenganako bidea; eta, batez ere, pobreenenganako bide jirabiratsua.

Hau dena geure bizitzari edo Elizarenari egokitzean, ezin gaitzke, alde batetik, aingerukerian edo, bestetik, axolagabekerian erori. Asisko Frantzisko batek hitzez hitz jaso zuen ebanjelio-zati hau, eta sekulako eragina izan zuen orduko Elizan eta gizartean. Gaur egun erlijioso-biziera berritu nahi duenak hitz hauek benetan eta sakontasunez jaso beharko ditu; baina, barruko zintzotasunez, irakurketa berri bat eginez.

Laiko askori, hitz hauek bere bizimoldetik ihes egiten diotela konturatuta, kezka sortzen zaio bihotzean. Baina, laikoak ere bete dezake Jesusen jarduera-moldea, desinstalazioa eta barruko askatasun hori ezinbestekoak baitira Jesusen segizioan. Eta desinstalazio horrek zerikusia daukake pertsonaren alor guztietan: pertsonarteko harremanak, gizarteko maila, ekonomi alorra... Bakoitzak begiratu beharko du zer nolako askatasuna eskatzen zaion ari duen horretan.

Errezetarik ez dago; baina gauza batzuk argi daude. Esate baterako, erlijioso-bizierak beharko du bere bizi-molderako erakundea; baina daukan guztia behar al du? Gaurko Elizak ere beharko du oinarrizko erakundea munduan gauzak behar bezala egiteko; baina, daukanarekin edo ez daukanarekin, libre al da Jesusen Berri Ona hots egiteko? Zer irudi ari gara ematen gizartean? Gure eliz elkarte biderako libre al da? Ibilian al dabil sikira? Ez al gaude instalazio astun baten menpean lozorroan, irteteko beldurrez?

Gaurko ebanjelio-atalaren mezua hor dago gordin eta indartsu. Fededunok mezu horren ispiluan begiratu beharko dugu geure aurpegia eta geure eginkizuna. Eta fededun ez denak ere, libre izan nahi duen neurrian, hobe luke molde honen argitan bere azterketa egitea. Nolanahi ere, gure Elizak bokaziorik eza eta adierazgarritasunik eza eta arnasarik eza bere onean aztertu nahi baditu, beharbada gaurko ebanjelioaren eskakizunetatik hasi

beharko luke azterketa egiten. Soinekoa, makila eta oinetakoak, besterik ez. Berri Onaren soinekoa. Gaitzari kontra egiteko makila. Eta askatasunaren bideetarako oinetakoak. Beste guztia, alferrikakoa ez ezik, fardel astuna da. Jesusek eskatzen digu biderako arin prantatzea.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok: iritsi daitezela gure otoitzak Jaunarengana, gure bihotzak ezagutzen dituenarengana.

—Eska dezagun Jainkoaren Semearen jakinduria Jainkoaren Hitza leialtasunez aldarrikatzen dutenentzat eta Eliza zerbitzatzen duten guztientzat. Eska diezaiogun Jaunari.

—Eska diezaiogun egiaren jabe bakarra den Jaunari, katolikoak ez diren beste kristau guztien alde, itun zaharraren herri diren juduen alde eta egiazko Jainkoa ezagutzen duten guztien alde. Eska diezaiogun Jaunari.

—Eska diezaiogun Jesus Salbatzaileari etxetik urruti bizi diren guztien alde, kartzelatuen, ahulen eta zapalduen alde eta pertsegituak direnen guztien alde. Eska diezaiogun Jaunari.

—Eska diezaiogun fedez zeruko Jaunari, hemen, bere etxean bilduak gauden guztion bakearen eta zorionaren alde. Eska diezaiogun Jaunari.

Entzun, Aita ahalguztiduna, gure otoitzak eta erakutsiezaguzu Zure Seme maitearen bitartez emandako guztiak eskertzen, Espiritu Santuaz beterik, hitzez eta egitez Zure salbamen asmoaren berri eman diezaiogun munduari. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Zure dohainak harturik, otoitz egiten dizugu, Jauna:  
misterio hau ospatzen dugun bakoitzean  
gehitu dadila gure salbamena.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**